

# TOKI HERRI ADMINISTRAZIOAREN ALORREAN ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN ALDEKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA

## OINARRIAK

-2017. URTEA-

# TOKI HERRI ADMINISTRAZIOAREN ALORREAN ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN ALDEKO INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA

## 1. PROGRAMAREN HELBURUA, DESKRIBAPENA ETA DIRU LAGUNTZEN IZAERA

- 1.1 Apirilaren 5eko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/32/CE zuzentarauak lege esparru berria ezartzen du eraginkortasunerako energiaren azken erabileran eta energia zerbitzuetan. Sektore publikoari edo herri administrazioari dagokionez, eredugarri jokatzeko eskatzen zaio energia aurrezteko eta energia eraginkortasuna hobetzeko neurrien aplikazioan, energia berriztagarrien erabileran eta energia zerbitzuak kontratatzekeo sustapenean.

Geroago, 2012ko urriaren 25eko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/UE zuzentarauak, 2006/32/CE zuzentaraia indargabetzen duena, berretsi egiten du administrazio publikoen zeregin eredugarria energia zerbitzuen kontratazioari dagokionez.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, 2030eko Euskadiko Energia Estrategian (3E-2030) nabarmentzen denez, Eusko Jaurlaritzaren energia politikaren helburuekin bat etorritik, behar den bultzada publikoaren bidez, honako misio hau gauzatzen laguntzen du: energiaren kontsumoan eraginkortasuna areagotzen, energia sistema lehiakorrago, seguruago eta iraunkorrago lortzen, ingurumen eragina edo inpaktua gutxitzen, kontsumitzeko energia gutxiago erabiltzen eta kanpoko baliabideen mendekotasuna murrizten.

Jakina denez, energia baliabideen urritasunak eta energiaren erabilerak ingurumenean dituen eraginak ekarri dute gero eta kezka handiagoa izatea administrazioaren aldetik zein gizartearen aldetik energia gaiaren inguruan. Beraz, laguntzen programa honen helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean “EAE”) udal instalazio eta eraikin publiko guztietan energiaren kontsumoa murriztea. Horretaz gain, energia berriztagarrien parte hartzea areagotu nahi da. Horretarako, herri administrazioaren alorrekoen eskura jartzen dira zenbait diru baliabide, laguntzen programa honetan dauden energia jarduerak aurrera eramane ahal izateko.

- 1.2 Laguntza Programa honen barruan ematen diren diru laguntzak itzuli beharrik gabeko diru laguntzak dira.

## 2. ONURADUNAK

- 2.1 Diru laguntzen onuradunak hauexek izan daitezke: udalak, udal mankomunitateak, kuadrillak eta administrazio batzarrak, baldin eta diru laguntza programa honetako 4. eta 5. oinarri edo ataletan aurreikusten diren jarduerak aurrera eramane badituzte Euskal Autonomia Erkidegoan.

- 2.2 Azaroaren 17ko diru laguntzez diharduen 38/2003 Legearen (aurrerantzean “LGS”) 13. artikuluan xedatzen diren eskakizunen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren Antolamendu Printzipioen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen (aurrerantzean “1/1997 Dekretu Legegilea”) 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako pertsona edo entitate hauek izan daitezke onuradunak: diru laguntza emateko eskatzen diren egoeran daudenak, edo oinarri hauetan eta deialdian aurreikusten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Pertsonak edo erakundeek, onuraduna izateari begira, debekurik ez dutela justifikatzeko honako era honetan egin daiteke: LGSen 13.7 artikuluan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.6 artikuluan aurreikusten diren prozeduren bitartez.

- 2.3 Pertsona onuraduntzat jotzeko ezinbesteko baldintza izango da, diru laguntza eman aurretik zein diru laguntza emanez gero egoera edo baldintza horretan jarraitu ahal izateko, zergen eta gizarte segurantzaren inguruko betebeharrak edo ordainketak eguneratuak edukitzea, eta hala badagokio, diru laguntzak itzuli behar izateagatik betebeharren ordainketak ere.
- 2.4 Programa honek ematen dituen diru laguntzez ezin izango dira baliatu honako hauek: LGSen 13.2 artikuluan eta/edo 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.5 artikuluan adierazten diren egoeraren batean dauden erakundeak, baita zigortuta daudenak, administratibo edo penalki, diru laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazita dutenak, edo debekuren bat indarrean dutenak eta horretarako gaitasunik gabe uzten dietenak ere.

### 3. AURREKONTUAREN ZENBATEKOA ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Laguntza Programa honi esleitutako diru-saila edo aurrekontua **seihun eta berrogeita hamar mila (650.000 €) eurokoa** da, EEE Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean “EEE”) aurrekontuetan horretarako ezarri den kredituaren arabera.

Laguntzen programa honen arabera, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian (aurrerantzean “EHAA”) iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea programa honen kontura, eta programari esleitutako diru-saila edo aurrekontua amaitzen edo agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, aipatutako aurrekontua agortu zein ez agortu, 2017ko irailaren 15ean izango da azken eguna diru laguntza eskabideak aurkezteko.

Epeak zenbatzeari begira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa beteko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena (aurrerantzean **39/2015 Legea**). Aipatzen diren egunei dagokienez, egun baliiodunak dira, eta, beraz, kopuru horretatik larunbatak, igandeak eta jaiegunak kanpoan geratuko dira.

Aurrekontuaren agortzearen berri emango da EHAA n zein Interneteko helbide honetan: <http://www.eve.eus>.

Laguntza Programa honen arabera, diru laguntza eskabide osoak aurkeztuta eta bideratzen egongo diren arren, bazter egingo dira, baldin eta esleitutako aurrekontua amaitzen bada, EEEko zuzendari nagusiak emango duen ebazpenaren bidez.

### 4. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntza Programa honen kontura diruz lagunduko diren energia eraginkortasunaren alorreko jarduerak Oinarri hauek 4. atalean zehaztutakoak izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoan eta data hauen artean gauzatu eta fakturatu beharko dira: 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra.

Laguntza Programa honen arabera, programa honek ematen dituen diru laguntzez ezin izango dira baliatu energia eraginkortasunaren alorreko jarduerak, baldin eta energia kontsumoaren murrizketa nabarmena kuantitatiboki frogatzerik ez badute.

**Udal Energia Plan** (aurrerantzean “UEP”) edo **Klimaren eta Energia Iraunkorraren Aldeko Ekintza Plan** (aurrerantzean “PACES”) baten barruan sartuta dauden jarduerak, dokumentu bidez justifikatuak, itzuli beharrik gabeko diru laguntza jaso dezakete; zehazki, laguntza hori kostu lagungarriaren %25 izan daiteke.

Ildo horretatik, oinarri hauek UEPa edo PACESA onartzeko honako ezaugarri hauek eduki behar ditu: tokian tokiko udalbatzak onartutako udal energia planifikazio zehatza garatzeko diseinatzen den dokumentua izatea, eta bertan energia eraginkortasunaren alorreko eta energia baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako ekintzak jasotzea. Nolanahi ere, gutxienez, honako informazio hau jaso beharko du:

- Ekintzaren deskribapena eta bera aurrera eramateko arduraduna.
- Lortutako energia aurrezkoa edota energia iturri berriztagarrietatik ekarritako potentzia.
- Egin beharreko inbertsioa eta gauzatzeko egutegia.

UEPen edo PACESen proposatzen den ekintzaren justifikazio dokumentalerako, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- UEP-PACESen fitxategia, formatu digitalean.
- Udaltzak UEP-PACESa onartu zuen bilkuraren aktaren edo dokumentuaren kopia.
- UEP-PACESen barruan diruz lagunduko den ekintzaren edo jardueraren kokapen zehatza (orrialdea) jasotzen duen dokumentua.
- UEP-PACESen barruan jaso eta burututako ekintzen egoera edo jarraipena.

Laguntza Programa honen arabera, programa honen kontura diruz lagundu daitezkeen energia eraginkortasunaren alorreko jarduerak hauexek dira:

#### 4.1 KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA

Atal edo neurri honen barruan sartuko diren jarduerak kanpoko argiteria publikoan energia elektrikoaren kontsumoa gutxitzea ekarri beharko dute, dokumentu bidez justifikatuta eta A klaseko energia-kalifikazioa izan behar dutena. Horrekin batera, energia eraginkortasunaz diharduen 1890/2008 Errege Dekretuak eta bere jarraibide tekniko osagarriek kanpoko argiteria publikoaz xedatutakoa bete egingo dute (aurrerantzean **1890/2008 E.D.**). Atal honen barruan sartuko diren proiektuek jaso dezaketen diru laguntza kostu lagungarriaren %20 izango da.

#### 4.2 DAUDEN UDAL ERAIKINAK

Laguntza Programa honen arabera, atal edo neurri honen barruan sartuko diren jarduerak egungo udal eraikinetan energia elektrikoaren edota erregaien kontsumoa gutxitzea ekarri beharko dute, eta hobekuntza egin ondoren, **eraikinaren energia eraginkortasunaren ziurtagiria erregistratuta** eduki beharko dute, 2013ko apirilaren 13ko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera (aurrerantzean “**235/2013 E.D.**”), eraikinak energia eraginkortasuna ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duena.

Neurri bakoitzari dagozkion zehaztapenak edo baldintzak honako hauek dira:

##### 4.2.1 KLIMATIZAZIOA EDOTA UR BERO SANITARIOA (ACS) EKOIZTEKO INSTALAZIOAK

Laguntza Programa honen arabera, neurri edo atal honen barruan sartuko diren jarduerak berokuntza, hozte edota ur bero sanitarioa (ACS) ekoizteko instalazioetan energia elektrikoaren edota erregai konbentzionalen kontsumoa gutxitzea ekarri beharko dute. Atal honen barruan sartuko diren proiektuek jaso dezaketen diru laguntza kostu lagungarriaren %20 izango da.

##### 4.2.2 BATERAKO SORKUNTZA INSTALAZIOAK

Atal edo neurri honen barruan sartuko diren jarduerak baterako sorkuntza edota hiruko sorkuntza instalazioaren bat jartzea ekarri beharko dute. Atal honen barruan sartuko diren proiektuek jaso dezaketen diru laguntza kostu lagungarriaren %20 izango da.

##### 4.2.3 BARNEKO ARGIZTAPEN INSTALAZIOAK

Laguntza Programa honen arabera, atal edo neurri honen barruan sartuko diren jarduerak egungo udal eraikinen barneko argiztapen instalazioetan energia elektrikoaren kontsumoa gutxitzea ekarri beharko dute. Ez dira kontuan hartuko larrialdi edo segurtasun instalazioetan egin daitezkeen hobekuntzak. Atal honen barruan sartuko diren proiektuek jaso dezaketen diru laguntza kostu lagungarriaren %20 izango da.

#### 4.3 ENERGIA AZTERLANAK ETA UEP-PACES PRESTATZEA

Atal honetan diru laguntza jaso dezaketen jarduerak hauexek izan daitezke: energia azterketak, azterlanak edo UEP-PACESen prestaketa, betiere energia kontsumoaren

azterketa eta azterlanari zuzenduak eta hasiera egoera kontuan hartuta. Horrekin batera, udal argiteria publikoan edota egungo udal eraikinetan aurrezteko proposamenak ere kontuan hartuko dira.

#### 4.3.1 ENERGIA AZTERLANAK

##### 4.3.1.1 KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOA

Neurri honen helburua da kanpoko argiteria instalazioez energia azterketak edo auditoriak egitea, energia eraginkortasuna hobetzeko hartu ahal diren erabakiak edo neurriak identifikatzeko eta horiek aurrera eramateko planifikazio programatu batez baliatzea.

Energia azterlanak edo azterketak izan behar dituen gutxieneko edukiak hauexek dira:

- Hasierako datuak hartzea.
- Abiapuntuko egoerari buruzko azterketa.
- Jarduteko proposamenen prestaketa. Horren barruan hauexek sartuko dira:
  - Ekintzaren deskribapena.
  - Lortuko den energiaren aurrezpena.
  - Egin beharreko inbertsioa.
- Araudien betetze mailaz azterketa.
- Laburpena eta ondorioak.

Eskatzaileek kostu lagungarriaren %50eraino hel daitekeen gehieneko diru laguntza eskura dezakete. Nolanahi ere, diruz lagunduko den gehieneko kostua ondoko taulan azaltzen da:

Udalerrri bakoitzeko koadro kopurua	Gehieneko erreferentzia-kostua
5 edo gutxiago	500 (€/koadroko)
6tik 15era	400 (€/koadroko)
16 baino gehiago	300 (€/koadroko)

##### 4.3.1.2 ENERGIA KONBENTZIONALEN BIDEZKO KLIMATIZAZIO EDOTA ACS EKOIZTEKO INSTALAZIOAK; INGURATZAILE TERMIKOA ETA BARNE ARGIZTAPENA

Neurri honen helburua da egungo udal eraikinetan dauden klimatizazio eta ACS ekoizteko instalazioez energia azterketak edo auditoriak egitea, energia eraginkortasuna hobetzeko hartu ahal diren erabakiak edo neurriak identifikatzeko eta horiek aurrera eramateko planifikazio programatu batez baliatzea.

Energia azterketak izan behar dituen gutxieneko edukiak hauexek dira:

- Eraikin edo establezimenduaren datu orokorrak, gutxienez honako hauek izan beharko ditu: energia hornidura iturriak, sortzeko sistemak eta prozesuak, kontsumo espezifikoak eta energia kostuak.
- Abiapuntuko egoerari buruzko azterketa.
- Jarduteko proposamenen prestaketa. Horren barruan hauexek sartuko dira:
  - Ekintzaren deskribapena.
  - Lortuko den energiaren aurrezpena.
  - Egin beharreko inbertsioa.
- Laburpena eta ondorioak.

Eskatzaileek kostu lagungarriaren %50eraino hel daitekeen gehieneko diru laguntza eskura dezakete.

#### 4.3.2 UDAL ENERGIA PLANAK (UEP) ETA KLIMAREN ETA ENERGIA IRAUNKORRAREN ALDEKO EKINTZA PLANAK (PAES) PRESTATZEA

Alkateen Ituna hainbat hirik edo herrik sinatutako konpromiso multzo bat da, Europar Batasunaren energia-politikaren helburuetatik haratago joateko asmoz, 2030 urterako, CO<sub>2</sub> emisioak, gutxienez %40 murrizteari begira. Horretarako, energia-eraginkortasuna %27 hobetzeko neurriak hartzearekin batera, udalek duten energia eskariaren %27 energia berriztagarrien bidez ase edo beteko dute.

Aipatutako helburuak lortzeari begira, Alkateen Itunarekin bat egiten duten udalek konpromisoa hartzen dute zenbait erabaki edo neurri aurrera eramateko, udal bakoitzak prestatuko duen PACESen bitartez. Plan horren barruan, udalerrian energia kontsumitzen duten jarduera edo alor ugari sar daitezke; esate baterako, energia eraginkortasuna hobetzeko neurriak, mugikortasunari lotutakoak, energia berriztagarrien erabilera sustatzeari zuzendutakoak, hondakinak, ura, ingurune naturala eta abar. Itunaren konpromisoak udalerrian eremu geografiko osoari lotuta daudenez gero, proposatzen diren jarduerak udalerrian energia kontsumitzen duten sektore guztiei dagozkie. Horren barruan ez da industria sektorea sartuko, baldin eta udalak sektore hori ere sartzea egokitzat hartzen ez badu.

Ildo horretatik, oinarri hauetan UEPa onartzeko, eta, beraz, diruz laguntzeko, honako ezaugarri hauek eduki behar ditu: tokian tokiko udalbatzak onartutako udal energia planifikazio zehatza garatzeko diseinatzen den dokumentua izatea, eta bertan energia eraginkortasunaren alorreko eta energia baliabide berriztagarrien aprobeixamendurako ekintzak jasotzea. Nolanahi ere, era orientagarrian, UEPek honako irismen hau eduki beharko du:

- Helburuak.
- Egungo egoera.
- Ekintza Plana:
  - Ekintzaren deskribapena eta bera aurrera eramateko arduraduna.
  - Aurreikusitako energia aurrekia edota energia iturri berriztagarrietatik aurreikusitako potentzia instalatua.
  - Egin beharreko inbertsioa eta gauzatzeko egutegia.
- Ekintza Plana ezartzeko egutegia.
- Lehentasunak eta ondorioak.

Laguntza programa honen arabera, neurri edo atal honetan sartzan diren energia jarduerak kanpoko aholkularitza edo laguntzarekin zerikusia izan behar dute, UEP-PACES prestatzeko udalak kontratatutako duen aholkularitza edo laguntza, hain zuzen ere. Diru laguntza kostu lagungarriaren %75 izan daiteke, honako muga hauek kontuan hartuz:

Udalerriko biztanle kopurua	Gehieneko kostua (€)
1.000tik behera	4.800
1.001etik 5.000ra	14.400
5.001etik 20.000ra	24.000
20.001etik 50.000ra	40.000
50.001etik gora	72.000

#### 5. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN JARDUERAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntza Programa honen kontura diruz lagunduko diren energia berriztagarrien alorreko jarduerak Oinarri hauetako 5. atalean zehazten dira. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharko dituzte eskatzaileek dira eta honako data hauen artean gauzatu eta fakturatu beharko dira: 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra.

Oinarri hauen arabera, ezin izango dira baliatu laguntzen programa honetaz, inongo ataletan, baldin eta energia berriztagarrien instalazioak egitearen kausa, aldez edo osorik, Eraikuntza Kode Teknikoak (aurrerantzean CTE) ezarri badu, energia aurrezteari begirako oinarriko eskakizunak betetzeko, edo eraikuntzari lotutako gainerako kalitate-helburuak betetzeko.

Laguntzen programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak hauexek baino ez dira izango:

- Ur bero sanitarioa (ACS) ekoizteko, igerilekuak klimatizatu eta berotzeko eta industria-prozesuetan edo antzekoetan ura berotzeko tenperatura baxuko eguzki-instalazio termikoak, estalkidun, CPC edo huts-hodidun kolektore zapalak dituztenak. Gainera, ez da mugarik jartzen instalatu beharreko azalerari dagokionez.

Atal honetan aipatutako jardueren diru laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu kostu lagungarriaren %35.

Jarraian, Laguntza Programa honek ematen dituen diru laguntzak eskuratzeko, jarduerak bete beharreko baldintza tekniko bereziak deskribatzen dira. Horrekin batera, proiektu mota bakoitzeko erreferentzia kostuak eta horien aldean gehieneko diru laguntzak ere azaltzen dira.

## 5.1 EGUZKI TERMIKOA

### 5.1.1 Aplikazio eremua

- Ez da muga ezartzen instalatu beharreko azalerari dagokionez.
- Elementuko instalazioak. Eguzki-erradiazioaren xurgatzetik abiatuta, fluidoren bat berotzeko eguzki-energia sistemak. Horretarako, eguzki-kolektoreak erabiliko dira eta hauen galera-koefiziente globala  $9 \text{ W}/(\text{m}^2 \text{ } ^\circ\text{C})$  baino txikiagoa izango da aplikazio termikoetan erabiltzeko.
- Sistema aurrefabrikatuak dituzten instalazioak. Eguzki-erradiazioaren xurgatzetik abiatuta, fluidoren bat berotzeko eguzki-energia sistema ez-zuzenak; berdin dio sistema trinkoa edo sistema zatikatua izatea. Eguzki-kolektoreen galera-koefizientea  $9 \text{ W}/(\text{m}^2 \text{ } ^\circ\text{C})$  baino txikiagoa izango da. Ekipo zuzenak ez dira diruz lagunduko.
- Aplikazio bereziak. Hozteko aplikazioak edo  $60 \text{ } ^\circ\text{C}$ -tik gorako diseinu-tenperaturetan egiten diren beste aplikazio batzuk; hartzailea homologatzeko kurba koadratikoaren aurrean, %40ko errendimenduak baino hobeak lortzen  $(t_m - t_a) = 60 \text{ } ^\circ\text{C}$  eta  $I = 800 \text{ W}/\text{m}^2$  direnean. Hozteko aplikazioetan, hotza sortzeko ekipoa ere kostu lagungarriaren partetzat hartuko da.

Hartzeko azalera erabilgarria  $40 \text{ m}^2$  baino handiagoa duten eguzki instalazio termikoetan energia neurtzeko sistema bat ezarri beharra dago zirkuitu primarioan, eguzki sistemak dakarren energia kuantifikatzea ahalbidetzen duena. Era berean, nahitaezkoa izan gabe ere, aukera interesgarria da instalazio txikietarako, aipatutako muga duten instalazioetarako, hain zuzen ere.

### 5.1.2 Erreferentzia kostua eta diru laguntzaren ehunekoak, erreferentzia kostuaren aldean

Erreferentzia kostuak, instalatutako potentzia-unitateko, edo hartzeko eremu-unitateko, inbertsio handiena izango dena, eta diru laguntzaren ehunekoak hauexek izango dira:

Kategoria	Erreferentzia kostua €/kW (*) (€/m <sup>2</sup> )		Diru laguntza / Erreferentzia kostua
Sistema aurrefabrikatuak	1.160 €/kW (812 €/m <sup>2</sup> )		%35
Elementuko sistemak	14 kW-eraino (20 m <sup>2</sup> )	1.160 €/kW (812 €/m <sup>2</sup> )	
	14 kW-etik gora (20 m <sup>2</sup> )	1.015 €/kW (710,5 €/m <sup>2</sup> )	
Aplikazio bereziak	1.450 €/kW (1.015 €/m <sup>2</sup> )		

(\*) Laguntza Programa honen ondorioetarako, hartzeko azalera edo eremu homologatua  $0,7 \text{ kW}/\text{m}^2$  erlazioa da.

## 6. KOSTU LAGUNGARRIA

### 6.1 DIRUZ LAGUNDUKO DIREN ASPEKTUAK

#### 1.- Kostu lagungarriaren inguruko alderdi orokorrak

Kostu lagungarritzat haxe hartuko da: egin behar den inbertsioa, aurreikusitako energia helburuak lortzeko ezinbestekoa dena.

Kostu lagungarriaren barruan aktibo finkoetan egindako inbertsioak sartzen dira (instalazioak, proiektuei lotutako ekipoak eta gastuak, muntaketa abian jartzea); betiere energia eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarrien erabiltzeko xedez.

Energia eraginkortasunaren alorrean gehieneko kostu lagungarria izango da lehen hamar (10) urtean lortuko den aurrezkiari esker amortizatuko dena.

Laguntza Programa honen arabera, eta oinarri hauei jarraiki, energia berriztagarrien alorreko jarduerari lotutako inbertsioei dagokienez, materialari eta eskulanari doakien diru kantitate edo sail guztia energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioari egotzi beharko zaio zuzenki, eta ez berriztagarriak ez diren beste teknologia batzuen erabileraz (energia konbentzionalen bidez funtzionatzen duten energia-instalazioak).

#### 2.- Kostu lagungarriaren inguruko alderdi zehatzak, jarduera motaren arabera

Laguntza Programa honen arabera, energia eraginkortasun maila areagotzeari zuzenki lotuta ez dauden kostuak ez dira diruz lagunduko.

- 4. Oinarriko 4.3 atalean aurreikusten diren diru laguntzei dagokienez, energia azterlanen edo auditorien kostuak lagunduko dira diruz.

Nolanahi ere, energia azterlan edo auditorian garatuko den lanaren irismena hartuko da kontuan (eskatzailearen kontsumitzaile-profila, kontsumitutako energiak, egin beharreko monitorizazioak, garatzeko energia balantzeak eta konplexutasuna, baterako sorkuntzaren bideragarritasunaren azterketa); baita ala ez, etab.); baita UEP-PACES prestatzeko ere.

#### 3.- Kontuan hartu beharreko beste aspektu batzuk

Oinarri hauen arabera, energia eraginkortasun zein energia berriztagarrien inbertsioei dagokienez, material eta esku lanari lotutako sail ekonomiko guztiak diruz lagunduko den energia instalazioari esleitu edo egotzi beharko zaizkio zuzenki.

### 6.2 KOSTU LAGUNGARRIAREN BARRUAN SARTUKO EZ DIREN JARDUERAK

- Fakturatutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindu den BEZa, eta, oro har, zergak.
- Inbertsioaren ondorioz eragindako finantza-gastuak, pertsonal propioari dagozkionak (6.1 atalean ezarritako muga lagungarriaren gainetik geratzen direnak) eta lurra erosteko gastuak.
- Ekipo erabiliak eskuratzeko inbertsioak.
- Honako hauek erosteko inbertsioak: makineria autopropultsatua, ibilgailuak, bizikletak eta, oro har, salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko garraio bideak.
- Obra zibilean egindako gastutzat har daitekeen sail ekonomikoa.
- Eta, orokorrean, behar bezala zehaztu eta definitu gabeko gastu guztiak, edo inbertsioaren energia helburuak lortzea xede zuzena ez duten gastuak.

## 7. DIRU LAGUNTZEI EGINGO ZAIZKIEN MUGAKETA OROKORRAK

### 7.1 Diru laguntzen zenbatekoaren muga

Laguntza Programa honen arabera, eta oinarri hauei jarraiki, energia eraginkortasun alorrean edo energia berriztagarri esparruan, laguntzen programa honen kontura gauzatuko diren jardueretan, onuradun bakar batek jaso dezakeen gehieneko diru laguntza **hirurogeita bost mila (65.000) eurokoa** izango da, eta ez du inola ere gaudituko proiektu mota bakoitzerako ezarritako ehunekoak, laguntzen programa honen oinarri hauetako 4. eta 5. ataletan azaltzen direnak.



Nolanahi ere, 4.1 eta 4.2 oinarrietan azaltzen diren jardueren diru laguntzaren zenbatekoak ezin izango du kostu lagungarriaren %20 gainditu energia eraginkortasun alorrekoak gauzatzeko, eta kostu lagungarriaren %35 energia berriztagarrien arloko jarduerak direnean.

Energia azterlana edo auditoria egiteko inbertsioei dagokienez, 4.3.1 oinarriaren kasuan, laguntzen programa honen kontura onuradun bakar batek jaso dezakeen gehieneko eta guztizko diru laguntza **hogei mila (20.000) eurokoa** izango da, eta ezin izango du kostu lagungarriaren %50 gainditu; hain zuzen ere, kasu honetan erreferentzia kostuarena dena. Inbertsioa 4.3.2 oinarriari lotuta bada, berriz, gehieneko diru laguntza **berrogeita hamalau mila (54.000) eurokoa** izango da, eta ezin izango du kostu lagungarriaren %75 gainditu.

Oinarri hauetan ezarritakoari jarraiki, energia eraginkortasun alorreko neurrietarako, diru laguntzaren zenbatekoa tona petrolio baliokideko (tepEP, energia primarioaren unitateetan), egiaztatutako aurrekia **1.200 €/ tepEP** balioa emanez.

## 7.2 Beste laguntza batzuekiko bateragarritasun erregimena

Laguntza Programa honen oinarrietan jasotzen den xede bera izanik, beste erakunde edo elkarte publiko zein pribatu batzuek emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira programa honetan ematen direnekin, baldin eta diru laguntza guztiak batera kostu lagungarriaren ehuneko guztizko inbertsioaren %80 edo txikiagoa bada (BEZik gabe). Kontrako kasua gertatuz gero, laguntzen programa honen kontura aplikatu dakioken diru laguntzaren ehuneko guztizko egingo da ehuneko horien aldearen arabera.

Beste administrazio batzuek edo erakunde pribatuek emandako diru laguntzak gauzatzen badira EEE Energiaren Euskal Erakundeak emandako diru laguntzaren ebazpenaren ondoren, diru laguntzaren zenbatekoaren gutxitzea ebazpen baten bidez zehaztuko da, diru laguntza ordaindu aurretik emango dena.

## 7.3 Diruz lagunduko diren jardueren kontratazioa edo azpikontratazioa hirugarrenekin

- a) LGSen 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, onuradun batek azpikontratatzeko duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: diru laguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren gauzapena hirugarren batekin hitzartzen bada. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko onuradunak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Nolanahi ere, hirugarrenen kontratazioa edo azpikontratazioa diruz lagunduko den jardueraren zenbatekoaren %100 izan daiteke; diruz lagunduko diren jardueren kontratazio edo azpikontratazioaren aplikazioari dagokionez, goraxeago aipatutako 29. artikuluan xedatutakoa beteko da.

- b) Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, urriaren 30eko Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean (**gaur egun TRSPKL** edo TRLCSP) ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoek, kontratu txikiari dagokionez, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada gauzatu, zerbitzu egin edo hornitzeko, edo salbu eta gastua egiten baldin bada diru laguntza eman baino lehen (salbuespena, azken kasu honetan, 651/2014 Erregelamenduaren mende dauden enpresei begira).

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, justifikazioan aurkeztu beharko direnak, edo hala badagokio, diru laguntza eskarian, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak kontuan hartuta egingo da, eta ekonomikoki proposamen abantailatsuena aukeratu ezean, berariaz justifikatu beharko da.

## 8. DIRU LAGUNTZA IZAPIDETZEKO KUDEAKETA ETA PROZEDURA

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta administrazio elektronikaz diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean **21/2012 Dekretua**),

Laguntza Programa honi lotutako espedienteen bideratze edo izapidetze guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak) bide elektronikoen bitartez baino ez dira egingo. Hain zuzen ere, izapide horietarako propio diseinatutako aplikazio informatikoa erabili beharko da. Aplikazio hori EEren webgunean dago eskuragarri, helbide honetan: <https://gestionayudas.eve.eus/solicitud>.

Diru laguntzak eskatzea edo bideratzearekin zerikusia duten edozein izapide edo dokumentu aplikazio informatika horretaz eginez gero, sinadura elektronikoa eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 9. DIRU LAGUNTZA ESKATZEKO MODUA

Oinarri hauen arabera, diru laguntzaren eskabidea eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa 8. atal edo klausulan aipatutako lekura bidali beharko dira, 3. atalean adierazten den epearen barruan.

Eskatzaileak jarduera mota bera toki batean baino gehiagotan egingo balu, toki bakoitzeko eskaera espezifiko bat egin beharko luke.

Diru laguntza eskaera egiteko, proiektu mota bakoitzeko, aplikazio informatikoaz aurkeztu beharreko dokumentazioa hauxe da:

- a. **Diru laguntza eskabidea.** Dokumentu honetan eskatzailearen datu orokorrak, diru laguntza eskatzea ekarri duen proiektu mota, haren kokalekua eta gauzatu nahi den jardueraren inguruko datu tekniko zehatzak azalduko dira, eta hala badagokio, proiektu berarako beste diru laguntza eskaerak.
- b. **Dokumentazio administratiboa**
  - Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa eskaeraren egunean.
  - Beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko adierazpen positiboa eskaeraren egunean (haien kopiak aurkeztu beharko dira).
  - Sinatzailearen (legezko ordezkaria) NANaren kopia.
  - Alkate edo kargu hautatzeko ziurtagiriaren kopia.
  - IFKaren kopia.
  - Kontu korrontearen IBAN-a egiaztatzeko banketxearen ziurtagiria, haren titularra onuraduna izan beharko da. Laguntzen Programa honek eskatzen dituen baldintza guztiak betez gero, kontu horretan sartu edo ordainduko da diru laguntza.
  - Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiria eguneratua.
  - Gizarte Segurantzaren dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiaztagiria eguneratua.
- c. **Dokumentazio teknikoa**
  - Memoria tekniko-ekonomikoa, diruz lagunduko den proiektu bakoitzeko, eta bertan hauxe adierazi beharko da: instalazioaren deskribapena eta egiteko epea, hasiera eskemak (hala badagokio) eta energiari eta ekonomiari lotutako kalkuluen laburpena.
  - Aurreikusitako energia aurrezpena egiaztatzeko justifikazioa.
  - Eskari agindua sinatuta, edo kontratu formalizatua eta sinatuta, diru-sail guztiak behar bezala zehaztuak eta banakatuak aurkeztu beharko dira. Ez da inolako dokumenturik (eskari agindua edo kontratua) onartuko, baldin eta diru-sail gehituak baditu, energia instalazioaren diru-sail garrantzitsuenak bereiztea galaraztea ekar dezaketenak.
  - Kanpo argiteria proiektuei dagokienez, REEAk (Kanpo Argiteria Instalazioetan Energia Eraginkortasun Araudia den 1890/2008 Errege Dekretuak) eta bere jarraibide tekniko osagarriek diotena betetzen dela adierazpena.
  - Argiteria publiko proiektuen kasuan, energia-kalifikazioaren justifikazioa (REEAren arabera).

- Eguzki-instalazio termikoak jartzeko badira eskatzen den diru laguntza eskabidea, gaur egun indarrean dagoen CTEn xedatutakoaren arabera beharrezkoak direnak, dokumentazio justifikagarria aurkeztu beharko da, aipatutako kodea ez zaiola aplikagarria egiaztatzeko.
- Eguzki-panel termikoen fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaile bakoitzak ematen duen dokumentazio teknikoaren kopia).
- Proiektuaren kopia, eguzki-instalazio termikoa potentzia termikoa 70 kW-ekoa baino handiagoa bada.
- UEP-PACES. 4. Oinarrian edo klausulan azaltzen den bezala, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da: (1) UEPen fitxategia formatu digitalean; (2) Udaltzak UEP-PACESa onartu zuen bilkuraren aktaren edo dokumentuaren kopia; (3) UEP-PACESen barruan diruz lagunduko den ekintzaren edo jardueraren kokapen zehatza (orrialdea) jasotzen duen dokumentua; eta (4) UEP-PACESen barruan jaso eta burututako ekintzen egoera edo jarraipena.

EEE Energiaren Euskal Erakundeak diru laguntza aztertzeko, ebazpena bideratzeko eta hala badagokio, emateko beharrezkotzat jotzen dituen informazio eta dokumentu osagarriak eska diezazkioke eskatzaileari.

## 10. EBAZPENA KOMUNIKAZIOA ETA PUBLIZITATEA

Diru laguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira.

Eskabidea osatugabe edo akatsekin egongo balitz, postaz bidalia edo eskura emanda aurkeztuz gero, hamar (10) eguneko gehieneko epea emango zaio eskatzaileari zuzentzeko, zuzentzeko bidaliko zaion idazkiaren bidez jakinarazia, diru laguntzaren eskatzaileak horren berri emateko jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua). **Ondorio horietarako, zuzenketa egingo den eguna joko da eskabidearen aurkezpen eguntzat.**

Goraxeago aipatutako epean dokumentazioa aurkeztuz gero, eskabideari dagokion espedientea bideratzen edo tramitatzen jarraituko da. Epe horretan dokumentazioa aurkeztu ezean, eskabidea baztertu egingo da, aldez aurretik berariazko ebazpena emanaz. Aurrekoa gorabehera, eskatzaileak beste eskabide bat aurkezteko eskubidea izango du. Nolanahi ere, 3. oinarrian zehazten den diru laguntza programaren iraunaldia kontuan hartu beharko da.

EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta modu elektronikoan (8. oinarrian azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez) helaraziko dio eskatzaileari jakinarazpena sei (6) hilabeteko gehieneko epean, diru laguntza eskaera aurkeztu den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua).

Ebazpen horretan diru laguntza jasotzen duen proiektuaren irismena, diru laguntzaren zenbatekoa eta intereseko beste alderdi batzuk azalduko dira. Ebazpena eskaerari ezezkoa emateko bada, ordea, zioak edo argudioak azalduko dira.

Epe hori igaro ondoren eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek onartutzat jo ahal izango dute beren diru laguntza eskaera, 39/2015 Legearen 24.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, interesdunek hautazko birjartze errekurtsioa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena

betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritz; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean 29/1998 Legea).

Diru laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko diru laguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake (LGEen 19.4 artikulua eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 49.2 artikulua).

Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorritz, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean 19/2013 Legea), Laguntza Programa hau amaitu eta gero, EEE Energiaren Euskal Erakundeak bere Gardentasun Atarian eta EHAAan argitaratuko ditu emango diren diru laguntzak; bertan, laguntzen zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak azalduko dira.

## 11. DIRU LAGUNTZAK ORDAINTZEA

EAEko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomiadunek zein EEE Energiaren Euskal Erakundeak emandako diru laguntzak itzultzeko dauzkaten elkarteek, laguntzen programa honen izaera berekoak baldin badira, ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen diru laguntzarik jaso.

Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko diru laguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Aurkeztuko den proiektua edo azterlana bukatu ondoren, EEE Energiaren Euskal Erakundeak emango duen diru laguntzaren ordainketa, onuradunak horretarako adierazitako kontu korrontean egingo da. Hori egin aurretik, justifikatu beharreko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, diruz lagunduko jarduerak eta egindako gastuak egiaztatzeko.

Justifikazioa aplikazio informatika baten bidez egingo da, hasieran diru laguntza eskabidea bideratzeari begira erabiliko den aplikazio bera.

Ordainketa eskaria egiteko, justifikatu beharreko proiektu bakoitzerako, honako formalizazio eta dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a. **Ordaintzeko eskaria.** Dokumentu hau aurkeztuta, proiektuaren amaiera eta abian jartzeko komunikazioa adierazten da, jarraian azaltzen diren dokumentu administratiboak eta teknikoak aurkezteko zain. eta bertan azaldu behar diren dokumentuak hauek dira:
- b. **Dokumentazio administratiboa:**
  - Eskatzaileak arauak betetzen dituela egiaztatzen duen ardura-deklarazioa justifikazioaren egunean.
  - Beste erakunde batzuek emandako beste diru laguntzei buruzko ebazpen positiboa justifikazioaren egunean (haien kopiak aurkeztu beharko dira).
  - Foru Ogasunean dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiazttagiri eguneratua.
  - Gizarte Segurantzari dagozkion ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen egiazttagiri eguneratua.
  - Egindako guztizko inbertsioaren faktura zehatza/k ((jatorrizko kopiak), 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 bitartean data dutenak. Faktura horien jaulkitzailea onuraduna bera izan beharko da, 2.1 oinarrian adierazten den moduan, Ziurtagiriak jaulkitzea eskatzen duten proiektuei dagokienez, proiektuaren bilakaera ziurtatzeko faktura bakoitzarekin batera, laburpena eta ziurtapenaren zehaztapena aurkeztu beharko dira.

- Instalazioaren kontratuaren kopia/eusteko konpromisoa (eguzki-instalazio termikoaren kasuan).

**c. Dokumentazio teknikoa:**

- Argiteria publiko proiektuen kasuan, proiektuaren energia-kalifikazioa eta kalifikazio horren justifikazioa.
- Erregistratutako eraikinaren energia-eraginkortasunaren ziurtagiria (eraikinetan hobekuntzez diharduen 2013ko apirilaren 13ko 235/2013 Dekretuaren arabera).
- Energia auditorien edo UEP-PACES egiteko azterlanen kasuan, azken txostenaren kopia, eta bertan Sintesi eta Ondorioak atal espezifikoak aurkeztu beharko da. Atal horren barruan honako dokumentu hauek azalduko dira: aztertu edo auditatutako kokalekuaren oinarriko deskribapena, energia-eraginkortasunean eta/edo energia berriztagarrien erabileran egindako azterlanaren nondik norakoaren laburpena, koadro eran azalduta, eta horri lotuta egin beharreko inbertsioa, urtean espero diren aurrezkiak, energia eta diru aldetik, eta jarduera bakoitzerako inbertsioaren itzulera agertuko dira.
- Diru laguntza jasotako energia jardueraren osagai nagusien kolorezko argazkiak. Argazki horietan hasierako egoera, jarduera egiten hasi baino lehen, eta amaierako egoera agertuko dira.

Goraxeago aipatutako dokumentazio hori EEERI aurkezteko azken eguna 2018ko urtarrilaren 15ean izango da, 8. oinarrian aipatzen den aplikazio informatikoaren era elektronikoz. Nolanahi ere, dokumentazio justifikagarri guztia aurkezteko epea ez da inola ere luzatuko EEE Energiaren Euskal Erakundearen aldetik.

Aipatutako dokumentazio hori guztia EEEren bulegoetan jaso ondoren, aztertzeari ekingo zaio, eta behar bezala izanez gero, diru laguntza ordaintzeko izapideari hasiera emango zaio, dagokion diru sarrera eginez.

Horrelako kasuren bar gertatuz gero:

- Eskatutako dokumentazio guztia ez da epearen barruan aurkezten.
- 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 bitartean, energia instalazioa egin dela eta dagokion fakturazioa ez dira egiaztatzen.
- Aurkeztutako dokumentazio justifikagarri guztia aztertu ondoren, hasieran amandako diru laguntzaren zenbatekoa txikiagoa izan behar dela edo ez zegokiola diru laguntza ematea.

Goiko hiru kasuetakoren bat gertatuz gero, EEEk diru laguntza alde edo osorik, kasuan kasu, errebokatzeko espedienteari ekingo dio.

## **12. IKUSKAPENAK**

Diru laguntza emateko ebazpena eman ondoren, EEE Energiaren Euskal Erakundeak ikuskapen teknikoa "in situ" egin ahal izango du, eta bertan diruz lagundutako jardueraren zenbait argazki adierazgarri egingo dira, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz. Ikuskapena egingo zaien onuradunei alde aurretik idazki bat bidaliko zaie haren berri emateko. Ikuskapena egiteko jakinarazpena jasoko dutenek egiteko betebeharra izango dute, eta, beraz, EEERI egiten utzi beharko diote.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi asteren barruan, EEE Energiaren Euskal Erakundeak onuradunari ikuskapen teknikoa edo ekonomikoa "in situ" egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin izango balitz ikuskapena egin, EEEekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idatziz jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, ikuskapena egin ahal izateko.

Hori egin ezean, EEEK diru laguntza aldez edo erabat errebotatzeko ebazpena emateko espedientea abiaraziko du.

Ikusapenean hartutako informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako diru laguntza kantitatea txikiagoa izan behar dela, edo ez dagokiola diru laguntzarik jasotzea ondorioztatuko balitz, EEEK diru laguntza aldez edo erabat errebotatzeko espedientea egingo du eta, hala badagokio, zati bat edo kantitate osoa itzultzeko eskatuko luke, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

### 13. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi edo programa honen bitartez arautzen diren diru laguntzen onuradunek, ezinbestean, betebeharrak hauek izango dituzte:

- a. LGSen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.2. artikuluan xedatutakoak.
- b. Emandako diru laguntza onartzea. Diru laguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, deialdian zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoen eta gainerakoen arabera.
- c. Diru laguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d. Kontrol Ekonomiko Bulegoari eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari ematea eskatu ahal dioten informazio zehatza eta guztia, laguntzen programa honen arabera, diru laguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginei jarraiki.
- e. Helburu bera edo antzekoa duen lana edo proiektua egiteari begira, beste administrazio, erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako edota horiek emandako diru laguntzaren berri ematea EEE Energiaren Euskal Erakundeari.
- f. Garatuko den egitasmoen lotutako instalazioek indarrean dagoen legeria edo araudia bete beharko dute, eta haien osagaiak dagokion erakunde eskumendunaren homologazioa eduki beharko dute. Beraz, onuradunak onartzen du egitasmoak bete egingo duela aplikagarria izan dakioken legeriaren alderdi guztietatik: teknika, hirigintza eta gainerako ezaugarriak kontuan hartuta; hori guztia, oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzak jaso ahal izateko.
- g. Instalazioa jabetzan izatea eta funtzionamendu egokian edukitzea bost (5) urteko gutxienezko epean, EEEK diru laguntza ematen edo ordaintzen duen egunetik kontatzen hasita.

Kasu bereziren batean, aipatutako bost (5) urteko epea igaro aurretik, onuradunak diruz lagundutako instalazioak edota ekipoak hirugarren bati besterentzea erabakiz gero, azken honek onuraduna izateko dokumentu honetan eskatzen diren baldintzak bete behar ditu, saltzeko kontratu-agirian espresuki adierazi beharko du inbertsio hori EEEren 2017ko Toki Herri Administrazioaren Alorrean Energia Eraginkortasunaren Aldeko Inbertsioak Sustatzeko Laguntza Programaren laguntza jaso duela. Era berean, jabe berriak edo erosleak konpromisoa hartzen du diru laguntza eman zen helbururako erabiltzeko eta instalazioak funtzionamendu egokian edukitzeko EAEn, gutxienez, aipatutako epea bete arte. Horrela ez balitz, EEE Energiaren Euskal Erakundeak diru laguntza aldez edo osorik, kasuan kasu, baliogabetzeko edo errebotatzeko espedientea irekitzeari ekingo lioke.

Nolanahi ere, besterentzea erabakiz gero, EEEri jakinarazi beharko lioke, kontratu-agiria sinatzen den egunetik hilabeteko epean gehienez ere.

- h. Diru laguntzaren helburua diren instalazioak eta/edo ekipoak besterentzen badira hirugarrenaren alde, diru laguntzaren onuradunak, hartzailearengandik diru laguntza eman zen helburua betetzeari begirako konpromisoa bereganatzeaz gainera, baita ezarritako epean zehar funtzionamendu egoera egokian edukitzeko ere, erosleak agindutakoa behar bezala betetzen ez badu, emandako diru laguntza itzultzeko betebeharra duela konpromisoa hartzen du.

- i. EEEK hala eskatzen baldin dio, onuradunak konpromisoa hartzen du lortutako emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazio lanak egiteko ere, bost (5) urteko epean, EEEK diru laguntza ematen duen egunetik kontatzen hasita.
- j. Diru laguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektiboa zein subjektiboaren berri ematea EEE Energiaren Euskal Erakundeari.
- k. Eman daitekeen diru laguntza ondo erabiltzen dela egiaztatzeko, EEEK eska diezaiokeen informazio guztia emango du onuradunak.
- l. Diruz lagunduko den proiektuaren inguruan egin daitezkeen komunikazio edo sustapen ekintzetan onuradunaren aldetik, paperean, euskarri elektronikoan edo ikus-entzunezkoan, proiektuak EEEren 2017ko Toki Herri Administrazioaren Alorrean Inbertsioak Sustatzeko Laguntza Programaren diru laguntza jaso duela erreferentzia argia azaldu beharko da.

#### **14. EZ BETETZEA ETA DIRUA ITZULTZEA**

Jasotako diru laguntzak itzultzeari ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio, diru laguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, LGSen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa alde edo partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako LGSen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio irizpideak kontuan hartuko dira.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak, aplika daitezkeen gainontzeko arauak edo diru laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedientea ireki, eta diru laguntzak ezeztatu eta itzuli egin beharko litzaioke EEEri, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Dekretu Legegilean xedatutakoari jarraiki eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. idazpurua, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura emandako diru laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, arautegia eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena eta, hala dagokionean, emandako diru laguntza alde edo osorik itzularazteko ebazpenena, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak du.

#### **15. INFORMAZIO KLAUSULA ESKATZAILEEI**

EEE Energiaren Euskal Erakundeak, Bizkaia plaza eraikinean, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua, 48011 Bilbon, helbideratua dagoenak, hauxe jakinarazten dizu: zuk emandako datu pertsonalak, edo geroago eratuko direnak, EEE Energiaren Euskal Erakundearen ardurapean izango diren fitxategietan sartuko direla. Datu horiek zure eskabidea aztertu eta kudeatzeko erabiliko dira, eta hala badagokio, eskabide horretan eskatzen den diru laguntza ematekotan, horren ondorioz sor litezkeen harremanak bideratu eta gauzatzeko; betiere, aplikagarria izan daitekeen araudia betez.

Nolanahi ere, onuradunak datu horiek ikusteko, aldatzeko, ezabatze edo inori ematen ez uzteko eskubideak erabil ditzake, datu pertsonalak babesteko legeriak xedatutakoari jarraiki. Horretarako, goraxeago aipatzen den EEEren helbidera idazki bat bidali behar du, bertan nor den behar bezala egiaztatuz.

Aurrekoaz gain, onuradunak honako konpromiso hau hartzen du: eskabidearekin zerikusia duen edozein pertsona fisiko/juridikoren datu pertsonalak EEE Energiaren Euskal Erakundeari eman aurretik, pertsona fisiko/juridiko horri aurreko paragrafoetan azaltzen diren testuen edukiaren eta gainerako eskakizunen berri emateko. Horretaz gain, EEEri datu pertsonalak era zuzenean emateko aplikagarriak izan litezkeen araudi guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du, EEEK

bestelako jarduera gehigarri egin beharrik gabe. Era berean, EEEri emandako datuetan gerta litezkeen aldaketa edo ezabaketan berri emateko konpromisoa hartzen du.

## 16. AZKEN XEDAPENAK

1. EEEren erabakiak izaera administratiboa du, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie EEEk kudeatzen dituen diru laguntzekiko jurisdikzio-eskumena.
2. Laguntza Programa honek emandako diru laguntzari esker egiten diren instalazioen irudien erabilera egiteko eskubidea du EEEk.
3. Onuradunak aurkeztuko duen dokumentazioan edo informazioan egon daitezkeen akatsen eta/edo errakuntzen erantzukizuna harena baino ez da izango, baldin eta EEEk eman beharko duen diru laguntzaren kantitateari eragiten badio zuzenean, ez izapidetza edo tramitazio egokiari dagokionez. Horrexegatik, hain zuzen ere, diru laguntza ematen den unean kontuan hartzen den gastuaren eta gerta litekeen gehikuntzaren edo gastu errearen arteko aldea ez da inola ere berrikusiko.
4. Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan honako hau beteko da:
  - 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorra.
  - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari buruzko Arautegia onartzen duena.
  - 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
  - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideaz diharduena.
  - 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
  - 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa.



TOKI HERRI ADMINISTRAZIOAREN ALORREAN  
ENERGIA ERAGINKORTASUNAREN ALDEKO  
INBERTSIOAK SUSTATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA

- 2017. URTEA -

## FORMULARIOAK

### **Diru laguntza eskatzeko formularioa**

2017ko diru laguntza eskabidea

### **Dokumentazio administratiboaren formularioak eskaeraren egunean**

Eskatzaileak araudia betetzearen inguruko deklarazioa eskaeraren egunean

Beste laguntza batzuez deklarazioa eskaeraren egunean

### **Dokumentazio teknikoaren formularioak**

Argiteria publikoa

Argiteria publikorako auditoria

Eraikinetarako auditoria

PEM-PACESerako auditoria

Klimatizazioa

Baterako sorkuntza

Barne-argiztapena

Eguzki termikoa

### **Dokumentazio administratiboaren formularioak justifikazioaren egunean**

Eskatzaileak araudia betetzearen inguruko deklarazioa justifikazioaren egunean

Beste laguntza batzuez deklarazioa justifikazioaren egunean